



ALEGIAKO UDALERRIKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA

SARRERA

2016ko irailaren 20an, Diputatuen Kontseiluak onartu zuen udalerrri honi dagozkion hiri-izaerako ondasun higiezinaren lurzorua eta eraikuntzen balioen ponentziaren berrikuspena. Ponentzia horretan oinarrituta lortu ziren hiri-izaerako ondasun higiezinaren katastro-balio berriak eta horiek 2017ko urtarrilaren 1ean sartu ziren indarrean.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 12. artikulua ezartzen duenez, katastroko balioak Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu, ofizioz edo dagozkion udalak eskatuta. Aldaketa horiek gauzatuko dira baldin eta hirigintza-plangintzak edo beste inguruabar batzuek agerian uzten badute funtsezko desberdintasunak daudela udalerrian dauden ondasun higiezinaren katastroko balioen eta merkatu-balioen artean, edo udalerriko zonaren batean edo batzuetan dauden ondasun higiezinaren merkatu-balioen artean.

Balio Ponentzia onartu zenetik, udalerriko hirigintza-plangintzan lurzorua izaerari eragiten dioten aldaketak egin dira, eta horiek, lurzorua eraginpeko ondasunen merkatu-balioan eragina dute.

Horregatik guztiagatik, aldatu egin da udalerrri honetako hiri-izaerako ondasun higiezinaren lurzorua eta eraikuntzen balio ponentzia.

XEDEA

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, aldatu egin da udalerriko Balore Ponentzia, honako inguruabar honen ondorioz:

- **Alegiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, Diputatuen kontseiluak 2021eko irailaren 14ko batzaraldian behin betikoz onartua (GAOn 2021eko azaroaren 29an argitaratua).**

EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantziaren ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

- 1.- Lurzoru hiritarraren mugaketa aldatzen da.**
- 2.- 021, 022, 800 eta 803 zona katastralen mugak aldatzen dira.**
- 3.- 804 zona katala sortzen da.**
- 4.- Sortutako zonak honako balioak izango ditu:**



<u>Zona</u>	<u>Hirigintz.</u> <u>sailkap.</u>	<u>(BEI) Balio Eraq.</u>	<u>(MP) Apark.</u> <u>Moduloa</u>
804	HIRILURRA	226,61 €/m2(e)	8.000 €

I ERANSKINA

Hirilurraren mugatze planoak.

II ERANSKINA

Zona katastralen planoak.